

# noaua



## LEHIAN, UMORE ONEAN

Jai giroa ostiral honetan lehertuko da Kalezarren, auzotarren arteko herri kirolekin / 16-18 or.

NOAUA

## "Dantza guztien funtsa adieraztea da"

Dantzalab Usurbilgo dantza laborategiko ikasleen ikuskizuna ekainaren 26an izango da, Sutegi aurrean / 06-07 or.



NOAUA

**Zikiro-janerako txartelak ostiral honetan salduko dira Aitzaga elkartearen** / 05



NOAUA

**lñurri elkartearen "Hil arte Bizi!" egunak jende ugari erakarri zuen** / 19



NOAUA

**Amaia Zubiriak hunkituta jaso zuen Kantu Taldearen esker ona** / 21



NOAUA

**"Pediatria zerbitzu duin bat ez da pribilegioa, oinarrizko eskubide bat da"** / 23



sentitu - bizi - izan

☉ BARE ☉

- PADI (odontopediatria)
- ORTODONTZIA
- IMPLANTEAK
- ODONTOLOGIA BIOLOGIKOA
- ODONTOLOGIA ESTETIKOA
- SEDAZIOA



943 29 06 19 - Arrantzale kalea 63, ORIO

## NOAUA! Kultur Elkarteak batzaile bila dabil.

*Astean 8 orduko kontratua, (%21,6ko jarduna).*

*Ordutegi malgutasuna eskainiko da, norbera antolatzen aukera.*

*Banaketa taldea osatu nahi dugu.*

*Usurbil ezagutzea eta euskalduna izatea baloratuko da.*

*Uztailean ikastaldia egin eta irailean hastekodisponibilitatea eskatzen da.*

*Bidali Curriculumak elkarteak@noaua.eus helbidera.*

**noaua**

# Galizian saritua, "sagardoaren kultura sustatzeagatik"

Sagardoaren Lurraldeak 'Grolo de Ouro' saria jaso du A Estradako (Galizia) XIII. Feira da Sidran. Saria Maceira e Sidra elkarteak eman dio, Sagardoaren Lurraldeak sagardoaren ondarea eta kultura zabaltzeko, sustatzeko zein balioan jartzeko egiten duen lana aitortzeko.

Leire Alkorta zubietarra da Sagardoaren Lurraldeako gerentea eta Luis Lopez Pontevedrako Aldundiko presi-

dentearen eskutik jaso zuen errekonozimendua. Saria jaso berritan, aitortzaren balio sinbolikoa azpimarratu zuen, sagardo-ekoizle diren lurraldeen arteko lankidetzaren testuinguruan. "Guretzat ohore handia da 'Grolo de Ouro' sari hau jasotzea. Bihotzez eskertu nahi dugu aitortza hau; hunkituta baina, aldi berean, erantzukizunez jasotzen dugu", adierazi zuen.



Leire Alkorta, Pontevedrako Aldundiko presidentearekin.

## Garbigune mugikorra, Txokoalden

Ekainaren 18an Zubietatik Txokoaldera eramango dute Udalak kudeatzen duen garbigune mugikorra. Eta hilaren 25ean, Txokoaldetik Santuenera lekuz aldatuko dute.

Bestalde, errefusaren hurrengo bilketa igande honetan izango da, ekainak 21.

## "Goazen kalera" herri erdigunean irailera arte

Aurrerantzean, herri erdigunean egingo dira astearteroko ibilaldi osasuntsuak. Hurrengoak, ekainaren 23an, 10:30ean frontoitik abiatuta. Ekintza berezia iragarria dute. Estreinakoz, abuztu amaierara arte luzatuko da ekimen hau. Izan ere, eskaintza hau luzatzea erabaki da aurtun.

## Jakin Jardunaldia egunotan egingo da

"Euskara esanindartzeko bidean: adierazkortasuna euskaraz lantzeko eztabaidak, gakoak eta hautuak" izeneko Jakin Jardunaldia antolatu dute Jakinek, Udalak eta UEU-k ostegun eta ostiral honetarako. Informazio gehiago, [www.ueu.eus](http://www.ueu.eus) bidez jaso ahalko duzue.

## Astebete barru, Sareren mobilizazioa

Sarek manifestazio iraunkorrak amaitzea erabaki eta 2027ko urtarrilaren 9an Bilbon iragarri duena azkena izateko borondatea agertu du. Hitzordu horren osteko herri mailako lehen elkarretaraztea astebete barru egingo da, ekainaren 26an, arratsaldeko 20:00etan Mikel Laboa plazan.



**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
[elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

**Elkarteko lehendakaria:**  
Ugaitz Agirre.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Kudeatzailea:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio Batzardea:**  
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goienua.  
**Publizitate arduraduna:**  
Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321  
[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)  
**Banatzalea:**  
Iban Maribalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 3.050 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
[erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## IRITZIA



LUIS ARANALDE

## Shukran: eskerrik asko

**B**artzelona FCeko izar gaztea, Lamine Yamal, itxaropenaren ikur bihurtu da Gazako lur zerrendan. Duela egun gutxi Gazako bandera astindu zuen Ligako titulua irabazi ondorengo festetan. Hori dela eta, gazatiar bi artistek omendu nahi izan dute bere irudia guztiz desegindako etxe bateko mural erraldoi batean pintatuz. Bitartean, "Shukran", ahoskatzen zuten, hau da, eskerrik asko.

Laminen irudiak Palestinako bandera zabalduz, mundu osoari buelta eman dio. Gazatik, Palestinaren mezua garbia da: esker onezko adierazgarri bat da. "Gerraren errautsetatik bidalitako mezua da, hain zuzen, munduak gure ahotsa entzun dezan". Halere, Laminen keinu horrek polemika piztu du. Palestinan pozez jaso duten bitartean, kirol eta politika espainiarrean, erreakzioa desberdina izan da. Baina, jakina, eztabaida ez da keinutik sortzen, baizik ortodoxia instituzionalaren aldetik, izan ere, ez du ikusi nahi eta Gazako errealitatearen alderdi etikolatza. Adibide garbia Israelgo Defentsa Ministroarena: futbolariaren keinuak "gorrotoa bultzatzen du". Politiko honen ustez, futbolak aseptikoa izan behar du, ideologiarik gabea. Ez da nonbait enteratu oraindik, futbola fenomeno humanoa eta soziala dela. "Futbola ez da hutsean gertatzen, justizia aldarrikatzen duen mundu batean baizik".

Laminereren ustez, palestinaren kausa hori oinarritzko identitate eta justizia kontua da. Kirola ez da ikuskizuna bakarrik, justizia gunea ere bada. Kirol erakundeek asepsia politikoa eskatzen dute,



"Laminereren ustez, palestinaren kausa hori justizia kontua da".

baina, tragediaren aurrean isiltzea neutraltasuna gordetzea al da? Garbi asko esan zuen 1984an Bakearen Nobel saria irabazi zuen Desmond Tutu elizgizonak: "Injustiziaren aurrean, inoren alde ateratzen ez denak, aukeratu du jada zapaltzailearen bandoa".

Gai honi buruz iritzi pare bat irakurri berriak ditut eta besteak beste, hau azpimarratu nahi nuke: errugabearen sufrimenduaren memoria ez dugula inoiz ahanntzi behar gogorarazten digu 18 urteko mutikoak. "Nazioarteko diplomazia eufemismoetan korapilatzen den bitartean", Laminek bere heroi modernoaren itzala erabiltzen du kausa zuzen baten alde. Ez du baimenik eskatu. Zorionez, iritzia emateko lizentziarik eskatzen ez duen belaunaldi batekoa baita. Bere pulpituia ez da zurezkoa, Instagramekoa (42 milioi jarraitzaile ditu) eta belar zelaikoa baizik. Yamalen keinua arrunt deserosoa da, arrakastak eta ospeak kontzientzia ez dutela anestesiatu behar gogorarazten digulako.

Nire ustez, Erromatik etorri zitzaigun Frantzisko Aita Santuaren mezuarekin bat dator Laminereren aldarri hori. Frantzisko oso zorrotza izan zen Gazako eta lurralde palestinarretako egoera tragiko hori salatzen. Bere esanetan, "gerretatik haratago joan da; hau terrorismoa da eta arma gisa gosea ere erabiltzen du". Frantziskok "Angelusa" errezatzen zuen bakoitzean, eskaera berdina errepikatzen zuen: "Mesedez, nahikoa da!". Lamine musulmana da, baina kausa zuzen horren alde Aita Santuaren sentimendu berberak agertzen ditu. Bere mezuak kirol bulegoen lasaitasun itxura hautsi du. "Gure kontraesan etikoaren ispiluaren aurrean jartzen gaitu", dio kirol kronista batek.

**"NIRE USTEZ, ERROMATIK ETORRI ZITZAIGUN FRANTZISKO AITA SANTUAREN MEZUAREKIN BAT DATOR LAMINEREN ALDARRIA"**

## Usurbil K.E.-ren batzarra larunbat honetan, Potxoenean

Bilgune horretako bazkideen ohiko batzarra deitu dute larunbaterako, ekainaren 20rako, 10:30etan Potxoenean. Gaiok hartuko dituzte ahotan:

- 1.- Lehendakariaren agurra.
- 2.- 2025/2026 denboraldiaren kirol balantzearen aurkezpena, eta onarpena, egoki bada.
- 3.- 2026/2027 denboraldiaren kirol aurreikuspenen aurkezpena, eta onarpena, egoki bada.
- 4.- Diru-kontuak. 2025/2026 denboraldiko balantzea eta 2026/2027 denboraldiko aurrekontuaren aurkezpena, eta onarpena, egoki bada.
- 5.- Zuzendaritza Batzordearen proposamenak.
- 6.- Bazkideen proposamenak.
- 7.- Galdera-eskaerak.

### Julen Lejardi kanpua

Aurtengo edizioa ekainaren 22tik 26ra izango dela iragarri du Usurbil Kirol Elkarteak, 09:00-12:30 artean. Lehen Hezkuntzako eta DBH 1-2 mailetakoei zuzendua egongo da. Izen-ematea zabalik dute esteka honetan: <https://forms.gle/gWvYsDbLQuS-LLUhh9>

## Odola ematen jarraitzea, ezinbestekoa

Odol Emailen Nazioarteko Eguna izan zen ekainaren 14koa. Deialdi horrekin bat egin du Usurbilgo Odol Emailen Elkarteak. Hurrengo hitzordua uztailearen 6an izango da.

Euskadiko Odol Emailiek jakinarazi dutenez, odol-mailak baxu samar dira zenbait motetan. Haien donantesdesangre.eus web orrialdean noiznahi jaso dezakezue egoera horren berri. Odol mota bakoitzari lotutako erreserben inguruko informazio eguneratua eskaintzen dute.

# Herriko jaiei lotutako deialdiak

Uztailaren 1etik 5era ospatuko ditugun herriko festei lotutako lehen deialdien berri duzue segidan.

## Ekainak 17, asteazkena

• 19:00 Jai batzordearen esku-tik, aurtengo festen aurkezpen herrikoia Mikel Laboa plazan.

## Ekainak 19, ostirala

• 19:30 Zikiro-janerako txartelen salmenta Aitzaga elkartearen. Prezioa: 30 euro (20 gazteek eta langabetuek).

## Ekainaren 21era arte

• Haurren Eguneko LH1-4koentzako ginkanan eta LH5-DBH2 artekoentzako erronkan izen-ematea: santixabelak.umeen.eguna@gmail.com

## "Buruz behera herria egin"

Aurten ere xaguxarrak bezala buruz behera herria

egiten jarraituko dugu gazteok, gaztetasunetik eta konpromisoz:

Xaguxarra ez da geldirik egoteko jaioa. Biraka dabil. Dantzan. Oreka bilatzen, baina aldi berean desorekatzen. Begirada aldatzen.

Lurrazeru bihurtzen eta zerua lur. Gazteok ere antzeko ibiltzen gara; gure modura noski. Izan ere, herria egin zein herri izateko gure modua aldarrikatu nahi dugu: bihurria, sortzailea, askatzailea eta kolektiboa. Xaguxarrak bezala, etengabeko mugimenduan dagoena; zailtasunei aurre eginez, moldatuz.

Garai bortitz hauetan, ez ditugulako kanpoko indarrek euren interesen arabera inposatu nahi dizkiguten egiak geure legetzat hartuko, ez eta alter-



Uztailaren 4ko zikiro-janerako txartelak ostiral honetan jarriko dira salgai.

natiben bilaketan amore eman-go. Galdera asko egon badaitezke ere, guk badakigulako bizitzeko, sentitzeko eta jokatzeko beste modu bat dagoela, eta hori jakitea da iparrorratzik handiena. Bestelako erantzunak hortik ernalduko baitira.

Txosnak dira hain zuzen erresistentzia honen erakusle. Ezinbesteko espazioak elkartzeko, asmatzeko, konspiratzeko, sortzeko, partekatze eta nola ez, ausartzeko. Funtsean, onartutakoa astintzeko, galdera berriak garatzeko eta modu berriak probatzeko.

Gaztetasunak baduelako berezko indar bat: imajinatzen ez dena irudikatze gaitasuna, posible dirudiena baino haratago begiratzekoa. Konformismoaren tranpan eroriz mundua dagoen bezala onartu beharrean, izan daitekeen horretan sinistu eta helmuga horren alde borrokatzekoa. Bidea egitekoa.

Horregatik, buruz behera herria egiten jarraituko dugu. Gaztetasunetik, ilusioz eta konpromisoz. Entzun gazte: lehen geldialdi bat dugu, baina aurrera goaz. Bazatoz?

## 'Xelebrekeriak', Arantxa Manterolak bildutakoak

### Zer pasa da? (1970 inguru)

Bertso-saio baten pres-takuntzan hamaika istilu izan dira, Usurbildik kanpoko jendea ere enteratzeko adina. Hala, irratsaio batera gonbidatu dituzte antolaketa ibili diren bi herritar, gauzak argitzeko-edo. -Kazetariak: Ea ba, nork azalduko digu zer gertatu den?

-Juan Joxe Kaminok, hitza hartuz: Nik esango dizut zer pasa zen!. Hor pasa zen, hainbeste gauza gertatu ziren, azkenean ez dakit zer pasa zen. Hilabete luzez aditu behar izan zuen gero kalean: Kamino, zer pasa zen, ba?

### Munduaren erdigunea (1870 inguru)

Garai hartan Usurbilen bost bat apaiz ba omen ziren. Arratsaldetan, paseo bat emanaz, Ixidro Txararen etxe parean pasatzen zirenean, beroni adarra jotzea omen zuten gus-tuko. -Apaizak: Ze Ixidro, ari al haiz? -Ixidro: Bai, hemen ari naiz.

-Eztabaidan gatozek ea norbaitek ba ote dakien munduaren erdia non dagoen. Hik ba al dakik? -Ixidro: akuilua lurrean sartuz: Hementxe dago erdia. Konforme ez dagoena datorrela neur-tzera!





Ekainaren 26rako ikuskizuna prestatzen, Dantza Laborategiko kideak. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

# "Gorputzaren lengoaia eta adierazpena bilatzen ditu dantza garaikideak"

**MARTA, JOSEBA ETA MAIDER** DANTZA LABORATEGIKO KIDEAK

Dantza laborategia Orbeldi dantza taldean hasitako proiektua izan zen, baina orain, autonomia eskuratu dute. "Xumea" dela azaldu duten arren, "pozik" joaten dira saioetara.

**ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO**  
**Nola hasi zen dantza proiektua?**

**Marta:** Orbeldi dantza taldean dantzatzeko nuen, eta astean behin neska bat etortzen zen gurera dantza garaikidea ematera. Batzuk gustura ginen, beste batzuk ez, eta taldea euskal dantzetakoa zenez, hortik kanpo egitea erabaki zen. Eneko Gilekin hasi ginen, eta azkeneko urtean Maiderekin ari gara.

**Zenbat kide zarete?**

**Joseba Belaustegi:** Historikoki sei eta hamar pertsona artean. Ekainaren 26ko ekitaldia aprobetxatuz, jendea azaldu nahi diogu zer egiten dugun, taldea egonkortzeko.

**Marta:** Momentu batzuetan gehiago egon gara, eta beste batzuetan gutxiago.

**Maidar Oiartzabal:** Deitu zidatenean ilusioz hartu nuen eronka. Sei izatea batzuetan eskasa izaten da. Ikasleek krisoren konpromisoa dute, eta biziraule batzuk dira.

**Zergatik atera zineten Orbelditik?**

**Joseba Belaustegi:** Zerbait burokratiko izan zen. Irakaslearen kontratazioa Orbelditik kanpo egin nahi zen, eta gure burua antolatzen behartuta ikusi genuen, lokala eta antzekoak eskatzeko. Orbeldiren bitartez, lokala eskatzen dugu, baina gu antolatzen gara, autonomia dugu.

**Maidar Oiartzabal:** Nik uste bi lan ildo desberdinak direla. Batetik, dantza tradizionala dago, eta joera bat dago dantza tradizionala garaikidetzeko; eta bestetik, dantza garaikidea bere horretan. Agian, Orbeldik ez zuen ikusten haien lan ildo zela momentu horretan dantza garaikidea egitea.

**Dantza garaikideaz ari gara, baina zer egiten da saioetan?**

**Joseba Belaustegi:** Niretzako garaikidea ez dago hain mugatua dantza konkretu batean edo ikasi behar den dantza batean. Gehiago esperimintatzea da, dimentsio guztietan mugitzen ikastea da. Gu jabetzen gara nola gure gorpu-

tza espazioarekin harremanetan jartzen den, eta gehiago jotzen dugu inprobisaziora. Emanaldia ere pixka bat hortik doa.

**Maidar Oiartzabal:** Beno, pautak batzuk baditu. Niri deitu zidatenean nik dantza laborategi bat proposatu nien. Dantza garaikideak baditu hainbat estruktura eta hainbat teknika, baina hainbat estilo desberdin ere. Baina, agian, dantza garaikidean desberdintzen den zerbait da bilatzen duela gorputzaren lengoaia eta adierazpena. Dantza guztien funtsa adieraztea da. Orduan, gure dantza laborategian egiten duguna da pautak batzuk emanez, gure gorputzaren mugimendu organikoetara iristea, esate baterako, kopiarik gabe. Dantza ikasteko modu asko daude. Egia da, koreografia bat erakutsi nahi dugunean, horrek kode eta pautak batzuk dituela, eta halaxe ikasi behar duzu. Esango nuke, hori dela gehien desberdintzen dena. Josebak dioenez, inprobisazioa jartzen dugu oinarrian, eta hortik, norbanakoak bere mugimendua lortzen du. Nik askotan bideratzen ditut ez pentsatzera, eta gorputza sentitzera.

**Marta:** Azken finean, gure gorputzaren esanetara mugitzen gara.

**Marta, zure kasuan dantza garaikidea eta tradizionala egiten dituzu. Aldea nabaritutako duzu ezta?**

**Marta:** Bai, ez dute zer ikusirik. Bat oso ikasia da eta bestean gorputzari entzun behar zaio. Puntu bat dago mugimendua-ekin disfrutatzen duzula. Nire

**"AZKEN FINEAN, GURE GORPUTZAK ESATEN DIGUNAREKIN ERAMATEN UZTEN GARA"**

ustez, mugimendua plazera-ekin konektatzen nauen zer-bait da.

**Maidar Oiartzabal:** Nik uste ez dela bata ala bestea. Dantza bizitzeko modu desberdinak dira soilik.

**Joseba Belaustegi:** Gainera, dantza garaikidean teknika ona baldin baduzu, tradizionala askoz adierazkorragoa izango da. Nik buruarekin nabaritzen dut, adibidez. Buruarekin dantza egitea oso zaila da. Nik bakarrik lortzen dut burua mugitzea, tentsioa kentzen dudanean. Zure burua askatzea lortzen duzu, eta tentsioa kentzen diozu gorputzari.

**Eta musikari dagokionez, zein musikarekin dantzatzen duzue?**

**Maidar Oiartzabal:** Nik uste gehien erabiltzen dudana musika instrumentala dela. Landu nahi dudana araberak izaten da, baina beti nahiko instrumentala. Ni, bereziki, instrumentalarekin kontzentratzen naiz. Adibidez, letra bat entzuten badut, zerbait konkretuagoa adieraztera joan naiteke. Libreago sentitzen naiz letrarik ez duen musikarekin.

**Joseba Belaustegi:** Batzuetan, musikarik gabe ere egin izan dugu. Musika era oso zabalean ulertu daiteke. Isiltasuna edo geldia egoteak zein adierazpen maila daukan ikasten da. Baina ez gaude ohituta. Gu ohituta gaude beti hotsa izatera, eta badirudi ekintza behar dela zerbait adierazteko.

**Ekainaren 26an emanaldia duzue, zer egin behar duzue bertan?**

**Maidar Oiartzabal:** 26an egin behar duguna da klaseetan egiten ditugun hainbat dinamiken erakustaldiak dira. Plazaratu behar dugunez, testuinguru batean jarri dugu. Usurbil iruditzen zait sorkuntza asko duen herri bat dela. Aipatu gainera, Zumeta artista handian inspiratu gine-la.



Maidar Oiartzabalek gidatzen du Usurbilgo dantza laborategia. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

**Joseba Belaustegi:** Aurkezpen txarteltxo bat da. Zazpi urte inguru daramatzagu, eta herriaren aurrean aurkezpen moduko bat egingo dugu jendeak ulertzeko zertan ari garen eta zer den. Herriko baliabideak erabiltzen direnez, herriari zor zaio bueltan zerbait jasotzea. Xumea da, baina gu pozik etortzen gara eta betetzen gaitu.

**Nola erreakzionatzen du jendeak saioetara gonbidatzen dituzue-nean?**

**Maidar Oiartzabal:** Nik ez dakit jende askok dakien egiten duguna. Kartel batzuk jarri genituen, eta herriko hainbat ezagun eta lagunek zer egiten dugun galdetu zidaten. Jakin-mina duena gerturatuko da.

**Joseba Belaustegi:** Izenak ikaratu egiten dituela uste dut. Horregatik iruditzen zait ga-

rrantzitsua adieraztea zer egiten dugun. Jendea animatzeko esango nuke, hemen ez dagoela ondo edo gaizki dantzatzeari; hemen gehiago da zuzenaz zure gauzak ondo egiten. Zuk garatuko duzu zure mugimendua.

**Zer da gehien gustatzen zaizue-na dantza laborategitik?**

**Marta:** Nik dantza garaikidean, adibidez, lotsa galtzen ikasi dut. Gehien balioesten dudana da.

**Maidar Oiartzabal:** Niri gehien gustatzen zaidana da pautak eskaini ahal izatea norbanakoak haren mugimendua aurkitzeko. Gero ikustea gorputzak nola mugitzen diren haiek sekula espero ez luketen gisan, eta plazera sentitzen dutenean mugimendu aske horretan. Hori da niretzako ederrena, eta gainera, nabarmentzen

dut gorputz bat haren askatasunean mugitzen ikusten dudanean.

**Joseba Belaustegi:** Lotsarekin batera galdu duguna da edozein planteamenduren aurrean sentitzen genuen beldurra. Ez dugu ezta pentsatzen, ariketa egiten hasten gara. Gustua hartu diogu esperimendatzeari.

**Maidar Oiartzabal:** Talde honen maitemindua nauka horregatik. Edozer gauza esaten dudala egin egiten dute.

**Urduri zaudete ekainaren 26ko emanaldiarengatik?**

**Joseba Belaustegi:** 26an egongo gara urduri. Orain ilusioarekin gaude.

**Zer nabarmenduko zenukete dantza laborategi honetatik?**

**Marta:** Mugimendua, hain oinarrizkoa dela, konturatzen zara orain ikasi duzula. Gauza bitxia iruditzen zait.

**Joseba Belaustegi:** Isilunean eta geldia egoteaz aipatu dudana gain, gauza gehiegi egitea gaizki egitea dela konturatu naiz, horrek itsusi egiten baitu.

**Maidar Oiartzabal:** Nik beti proposatzen dudana da hemen eta orainean mugitzea, eta espektatibetatik urruntzea.

**"ISILTASUNAK EDO GELDI EGOTEAK ZEIN ADIERAZPEN MAILA DAUKAN IKASTEN DA LABORATEGIAN"**

**"NIK USTE EZ DELA BATA ALA BESTEA, DANTZA BIZITZKO MODU DESBERDINAK DIRA SOILIK"**



Txapelaren bila abiatuko diren 50 bertsolarien artean Asier Azpiroz zubietarra dago. GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA.

## Bertsolari eta epaile herrikide bana, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan

Irailaren 19tik abenduaren 20ra jokatu da txapelketa. Lehiakideen artean Asier Azpiroz Iztueta zubietarra izango da. Bestalde, Jurgi Fuentes Goikoetxea epaile lanetan ariko da.

50 bertsolari lehiatuko dira Hazparnen hasi eta Iruñean amaituko den txapelketan. Sei bertsolari gehiago izango ditu edizioak (Arabako bi, Nafarroako bi eta Xilabako bi) eta saio bat gehiago.

Lehen fasea zazpi saioz osatua egongo da, Euskal Herriko zazpi herrialdeetan jokatu dena, irailaren 19tik urriaren 11ra. Finalurrekoen fasea etorriko da gero; urriaren 24tik abenduaren 5era. Azkenik, aipaturiko final nagusia, abenduaren 20an Iruñean izango da. Zortzi bertsolari lehiatuko dira Iruñeako final nagusian. Aurreko edizioako irabazle Maialen Lujanbio Zugastik

du ziurtatua plaza bakarra. Gainerako zazpi lehiakideak nortzuk izango diren udazkenean erabakiko da.

### Debuta

Dagoeneko bertsolari parte hartzaileek lehen fasean noiz eta non parte hartuko duten zehaztu du Bertsozale Elkarteak. Asier Azpiroz Iztuetak urriaren 11n Agurainen (17:00etan Lezaio kirolgunean) izango du txapelketa honetako lehen hitzordua. Saio berean lehiakide izango ditu Agin Laburu Rezola, Aissa Intxausti Aburruza, Gorka Pagonabarraga Agorria, Irantzu Idoate Funosas eta Nerea Elustondo Plazaoia. Irati Martinez Izaga ariko

da gai-jartzaile lanetan. Saio guztietarako sarrerak salgai izango dituzue bertsozararak.eus atarian. Hilaren 24ra arte, Bertsozale Elkartearen bazkideek finalerako sarrera erreserbatuta izango dute eta "txapelketa osoko bonoa erosteko aukera eta saio guztietarako beherapena".

Bertsozale Elkarteak lehia-keta garaiaren "unea baliatu nahi du Elkarteak mapan kokatzeko bertsoa, kultura eta euskara. Izan ere, kultura eta euskara ito nahi duten honetan, hitza giltza eta euskara funtsa dituzten diziplinak arnasgune eta arnasaldi direla azpimarratu da".

Informazio gehiago bertsozale.eus atarian jaso ahalko duzue.

**"BERTSOZALE ELKARTEAK UNEA BALIATU NAHI DU MAPAN KOKATZEKO BERTSOA, KULTURA ETA EUSKARA"**

## LANEKI elkartearekin, lan-mundua euskalduntzen

Lanbide Heziketa eta lan-mundua euskalduntzen elkarlanean dihardute LANEKI elkarteak eta Buruntzaldeko udalak. Udalotatik gogorarazi dutenez, "duela hainbat hamarkada euskarazko ikasmateriala sortzen hasi ziren Lanbide Heziketako (LH) irakasle-taldeak, eta 2003an, LANEKI elkarte sortu zen, ahalegin guztiak batzeko asmoz. Orduz geroztik, euskarazko materiala itzultzen, prestatzen, eguneratzen eta eskura jartzen aritu da LANEKI; bi hamarkadotan ekarpen nabarmena egin dio, bai, Lanbide Heziketako euskararen normalizazioari, bai lan-munduari".


### Lan-ildoak

Zenbait lan-esparruetan eragiten dihardute. Batetik, "lanbide-familia guztientzako euskarazko materialak sortzen dira, eta, gaur egun, 1.260 material baino gehiago daude sarean, jakinbai.eus webgunean partekatuta. Buruntzaldeko udalekin lankidetzan, urtero 2 material sortzen dira; adibidez, azken urteotan esanguratsuak izan dira Elektrizitatea eta elektronika, Informatika eta Komunikazioa eta Irudia eta Soinua".

Bestalde, "Jakinbai.eus webgunean Hiztegia atala ere bada, eta lanbide-familia guztietako terminologia dago. Guztira, 12.791 kontzeptu biltzen ditu; horiek adierazteko euskarazko kontzeptuak 13.823 dira, eta gaztelaniazkoak, 13.178. Hiztegia edonork kontsulta dezake, erabiltzaile gisa sartuta".

Azkenik, Lanbide Heziketa Duala euskaraz komunitateari dagokionez, baliabideak eskaintzen zaizkie lhdualeuskaraz.eus web-atarian komunitatea osatzen duten erakundeek, lantokiek, ikastetxeei eta ikasleei.





Ikastola Lagunak ekimenarekin bat egin dute baita Udarregin ere.

# "Ikastolatik zoaztenok bueltan ikusi nahi zaituztegu"

Ikastolen proiektuen defentsan, bertan aritutakoek ibilbidea amaitu ostean ere haien kide izaten segitzeko, hartueman horri eusteko "Ikastola Lagunak" taldea sortu dute Udarregin, Euskal Herriko beste hainbat txokoetan egiten ari diren moduan.

## ARITZ LASARTE

Egunotan ikusi ditugu ekitaldi bateratuan Euskal Herriko ikastolak, elkartasuna eta babesa adierazten matematikako azterketa euskaraz egitea erabakitako Ipar Euskal Herriko ikasleei. Hitzordu hartan, sorreratik hamaika alditan egin bezala, argi adierazi zuten, 115 ikastolako sareak "herri bat josten dugu", bakoitza bere herrian sustraitua egon eta era berean, ikastola bakoitza "Euskal Herri osoa lotzen duen sare baten parte" baita. Azken hilabeteotan, Nafarroako ikastolen alde sortutako babes sozialari dagokionean aipatzen zuten, "ikastola baten etorkizuna arriskuan jartzen denean, herri oso baten hez-

kuntza proiektua" jartzen dela auzitan. Horregatik, horren ondorioz "erantzuten dute tokian tokiko eragile zein pertsonen eta sare osoak elkarlanean".

Euskal Herriko ikastoletako lehendakariak beste behin gogorarazi zutenez, "Euskal Herriatik sortutako eta Euskal Herriarentzat eraikitako hez-

**"IKASTOLA LAGUNAK IZENEN TALDEAK, IKASLE, FAMILIA ETA LANGILE OHIEK OSATZEN DITUZTE"**

kuntza proiektu integral" bat dira ikastolak; "euskaraz, euskal curriculumetik, pedagogia propioarekin eta gizarte-onuraren ikuspegitik. Komunitatearen parte-hartzea, auzolana, konpromiso soziala eta eraldaketa pedagogikoa" ditu ikastolen proiektuak oinarri gisa. Aurrera begira, "Euskal Herriak parez pare dituen

**"BADIRA GUTXIENEZ 16 BAT TALDE; TARTEAN, UDARREGIREN BUELTAN OSATURIKOA"**

erronka digital, sozial, pedagogiko eta linguistikoei erantzuteko elkarlana eta indarrak batzeko beharra" nabarmendu zuten. Horretarako, gainerako eragileekin eta erakundeekin lankidetzan aritzeko konpromisoa berretsi zuten, "herri gisa erantzun partekatuak eraikitzeko", bestela esanda, "herri bat euskaraz josten" segitzeko.

## Ikastolen defentsan

Norabide horretan eragitera dator "Ikastola Lagunak" egitasmoa. Euskal Herriko hainbat ikastoletan abiarazitako ekimena da, Usurbilgo Udarregin ere martxan dutena. "Ikastola Lagunak taldeak ikasle-ohiek, familia-ohiek eta lankide-ohiek osatzen dituzte". Bere helburu nagusia da "bakoitzaren ibilbidea ikastolan amaitu eta gero ere, ikastolon identitateari eustea, ekarpen berriak eginez eta babes olatua bilakatuz denboran zehar". Ohi izateari utzi, eta ikastolarekin harreman bizia izaten segitzea sustatu nahi dute, ikastolekiko maitasuna eta oroimena antolatu eta ikastolei sostengua eta indarra ematen segitzeko. Taldean parte hartu nahi izanez gero, ikastolalagunak@udarregi.eus helbidera idatzi daiteke. Berriki, taldeok haien artean saretzeko lehen ekintza soziala egin zuten Arrasaten. Badira gutxienez, hamasei bat martxan; tartean, ikasturte honetan Udarregiren bueltan osaturikoa.

Iraunkortasuna eman nahi diote sorburua 2019an duen mugimenduari. Ikastoletako Artezkari-tza Kontseiluetako hainbat kideek nahiz ikastoletan arduraren bat izandakoek haien ikastetxe barruko ibilbidea (izan profesionala nahiz guraso gisa) amaitu ostean, "ikusi zuten babes taldeak sortzeko beharra", Udarregiko taldetik hedabide honi aditzera eman diotenez. Xede argi batekin nahi zituzten taldeok sortu; "Euskal Herri oso-

→ ko ikastolen lana, proiektuak babestu eta laguntzeko".

Bilerak antolatzen hasi ziren, bide ematen ekimen honi, baina bapatean, guztion bizi-modua geldiarazitako covid19ak eragindako osasun krisialdian murgildu ginen 2020an. Ondorioz bi urteko tartean ez zen aurrerapauso gehiago emateko modurik izan. Gerora bai, berriz hartuemanen heldu eta "ikastola desberdinekin hizketan jarraitu zuten. Herrialde guztietako, hau da, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Iparraldeko ikastoletan lan-keta horrekin hasia nahi zuten".

Horretarako, "Euskal Herriko Ikastolen Elkartearekin hitz egin zen. Gaia planteatutakoan, ados agertu ziren. Handik eskatu zuten, ikastola bakoitzeko Artezkaritza Kontseiluekin eta zuzendaritza taldeekin hitz egitea, gaia azaldu eta ikastolaren prestasuna ikusteko". Aipatu moduan, hamasei ikastola batu dira lagun sare horretara. Udarregiko taldeetik aditzera eman digutenez, "beste zortzitan ari dira orain gaia planteatzen, ikastoletan hitz egiten, eta ikusten ea atxikitze moduan diren".

### Saretzen

Udarregiri dagokionean, "ikasurtearen hasieran, ikastolako Artezkaritza Kontseiluarekin bildu ginen haien baimena edo onespena jasotzeko. Baietz esan zitzaigun. Orduan hasi ginen martxan".

Bide horretan batzen doaz ikastola ezberdinak, momentuz, gutxienez hamasei dira; tartean da Udarregi. Tokian tokiko taldeok elkar lotuak daude, hala izatea nahi zuten hasieratik. Talde eragile bat dago eta gero, "pixkanaka sartzeko joan garen gainerako ikastolak". Bizpahiru hilean behin biltzen dira. Whatsapp taldearekin eta e-posta elektronikoko helbideen bidez saretuak daude, komunikazioa arindu eta errazte aldera. Ira-



Begoña Izeta ikasle eta guraso ohia eta Mariaje Imaz langile eta zuzendari ohia, Ikastola Lagunak taldean dira egun.

garri digutenez, uztailean dira biltzekotan berriro ere, ikasturtea ixteko.

"Kanpotik, beste ikuspuntu batekin, jasotako esperientziarekin, pentsatzen dugu oraindik ere badugula zer emana. Jakin nahi dugu ere ikastoletan zer proiektu diren aurrera eraman nahi direnak, bidean zer oztopo aurkitzen dituzten eta ahal bada lagundu. Gu prest gaude laguntzeko, bai ikastola bakoitzeko barruko bizimoduan uneren batean behar badute, nahiz kanpotik ere batzuetan, erakundeekin, ikastola bakoitzak beharrezko jotzen duen horretan, beti ere gainerako ikastolen adostasunarekin eta onespenearekin".

### Zilbor-hesteari eustea

Taldeok ikastoletako kide ohiez osatuak daude; familia, guraso, ikasle, langile ohiez. Bere-

**"JASOTAKO ESPERIENTZIAREKIN, PENTSATZEN DUGU ORAINDIK ERE BADUGULA ZER EMANA"**

ziki, ikasle ohiengan jarri nahi dute arreta. Usurbilgo kasuan DBH amaitzean, edota beste ikastola batzuen kasuan, baxilergoko ikasketen bukaeran, "etenaldi bat sortzen da" ikasle ohien eta ordura arte haien ikastetxe izan dutenaren artean, beste hezkuntza zentroetara doazelako. Horregatik, aditzera eman digutenez, ikasle ohien eta ikastolen artean eman ohi den urruntzearen aurrean, "ikasleok taldeotan barneratzen ahalegindu nahi dugu". Ikastolako komunikazio euskarrien bidez jakinarazi dute taldearen sorreraren berri. Horrez gain, ikasle ohien datu-basea sortu nahi dute. Horretarako beharrezko baimenak eskuratu asmo dituzte. Hartara, ikastola barruko ibilbidea amaitzen duenak, "Udarregirekin hartuemanen izaten segi nahi badu" asmo hori bermatu nahi dute. Taldea


**"XEDEA DA IKASTOLAREKIKO HARTUEMANA EZ HAUSTEA, EZTA HORREN ESANAHIAREKIN"**

prest legoke kasu horietan, ikastolari buruzko informazioa helarazteko. "Xedea da ikastolaren proiektuarekiko hartuemanen ez haustea, ezta ikastolak esan nahi duen guztiarekiko. Taldeekin ikastolak defendatu nahi ditugu, proiektu gisa orain arte izandakoa balioan jarri". Ikastolen egitekoak ekarri dituzte gogora; "biharko euskal herritarrek gaurtik hezten dituen herri ekimena gara. Komunitate kooperatiboa eta prestatua osatzen dugu. Lankidetzan dihardugu euskalgintzarekin eta hezkuntzako eta gizartearen eragileekin".

### Agurrerako oparia


Zilbor-hesteari horri eustera begira, haria eten ez dadin, antolatutako ekimenetako bati bide emango diote ostiral honetan, ekainaren 19an. Izan ere, 2025-26 ikasturtea amaituko dute ikasleek. Helduenek, DBH4. maila bukatuko duten ikastolatik badoaz, baina ez esku hutsik: Ikastola Lagunak ekimenaren irudia darman koadernotxo, estutxe eta boligrafo bana oparitutako diete. Mezu argia helarazi nahi diete: "ez ahaztu ikastolak. Hemendik bazoazte, baina bueltan ikusi nahi zaituztegu".

## Zer da?



Ikusi al duzu halakorik inoiz?  
Nola deitzen diozu zuk?  
Hizki zopa honetan haren  
izen batzuk aurkituko dituzu.  
Honoko hauek:

- TRIKUA • KIRIKOLATZA
- XARROBIA • KIRIKIÑOIA
- SAGARROIA • KIRIKIOIA
- SAGARRERROIA



## Sudokua



Bete itzazu sudoku honen hutsuneak TRIKUA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (T, R, I, K, U eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

## Badakit!

Begira zer egin duen trikuak azkonarra ikusi duenean: bere gorputzean bildu, eta arantzaz beteriko bola bihurtu. Zure ustez, zergatik egin du hori?



Arriskua sentitu duenez, bere burua babesteko

Nahi gabe egin du

Harekin jolastu nahi izaten duelako


Sabelean ferekak nahi dituelako

Inoiz ez du halakorik egiten




Azkonarraren kiratsak giharrak uzurtu dizkiolako

## aldea dago!



Aurkitu bi trikuen artean dauden aldeak. 9 dira guztira.




Hauxe aurkitu beharko zenuke Olatz kirikolatzairen etxearen inguruan:

-  6 euli
-  4 zizare
-  3 barraskilo
-  2 sorgin-orratz



# Miren Olatz Kirikolatza beldurtiaren baratza



**Margotu** Trikuek ez dituzte bide-seinaleak ezagutzen. Horregatik, bidean ikusten badituzu, pasatzen utzi. Eta orain, margotu irudia zure gustura.



Eskualdeko zenbait ordezkarri politikok eta euskara teknikariek Andoaingo Bastero kulturgunean zozkatu dituzte 2025ean parte hartu dutenen sariak. ANDOAINGO UDALA.

## Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ikasi eta azterketa gainditzea bultzatzen jarraitzen dute

Zozketa bateratua azkenekoz egin dute eskualdeko udalerriek eta horietako gehienak dirulaguntza zuzenak emateko bidea urratzeko prest daude. 69 izan dira 2025ean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz egin eta gainditu dutenak

### BURUNTZALDEA

Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ikastea eta azterketa euskaraz egitea bultzatzeko asmoz, 2010ean jarri zuten martxan Gidabaimena Euskaraz egitasmoa Buruntzaldeko sei udalek: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil. Hamasei urteotan lankidetzan aritu dira eskualde horretako autoeskoletan eta tarte horretan 1.300 herritar baino gehiagok parte hartu dute eta zenbaitek zozketa bidezko sariak jaso dituzte.

Iaz 69 herritar izan ziren gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz egin eta gainditu zutenak: zazpi Andoainean, zortzi Astigarragan, 28 Hernanin, sei Urnietan eta hogeitaz Usurbilen. Zozketa ekitaldia Andoaingo Bastero kulturgunean aurrera eramane zuten eta bertaratu zirenek jakinarazi zuten, aurtengoa izango da zozketa bateratua egin duten azkeneko aldia. Izan ere, azken urteetan parte hartzea jaisten ari dela kontuan izanda, uneotan

dirulaguntza zuzenak emateko bidea urratzeko prest daude udal gehienak, bakoitzak bere erara. Sistema hori ezartzen aitzindaria Lasarte-Oriako Udala izan da eta horregatik ez zuen ekitaldi horretan parte hartu.

Arestian aipatutako ekitaldi horretan 400 euroko zortzi sari zozkatu zituzten eta hauek izan ziren irabazleak: Maren Jauregi Ugartemendia eta Nahia Gorostidi Lopez (Andoain); Enaitz Isasti Zabaleta (Astigarraga); Eki Sanchez Balerdi, Endika Rekondo Murua eta Ane Livi Santacruz Elozegi (Hernani); Hegoi Lizaso Lopez (Urnietan); eta Saray Hernandez Etayo (Usurbil). Horietako zenbaiten lekukotzak jaso ditugu eskuinaldeko zatiduran.

**1.300 PARTE HARTZAILE BAINO GEHIAGO IZAN DIRA 2010EAN EGITASMOA MARTXAN JARRI ZUTENETIK**

Irabazleak iragartzearekin batera, egitasmoaren ardura-dunek eskerrak eman zizkieten bat egin duten eskualdeko autoeskoletan: Andoaingo Bengoetxea eta Vallina CAP; Hernaniko Hernani, Lagunak eta Otamendi; eta Urnietako zein Usurbilgo Solozabal.

### Material "eguneratua eta oso txukuna"

Gidabaimenak euskaraz egitasmoa Euskadiko Autoeskoletan Federakuntzak koordinatu eta kudeatzen du, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. Hamasei urteko ibilbideko mugarrietako bat 2024an ezarri zuten: webgunea (gidabaimena.euskaraz.eus) berritzeaz gain materiala osatu eta eskuliburuak argitaratu zituzten A, A1, A2, AM, B, C, C1, D, D1 eta E baimenetan. Atari digital horretan jaso zuten baita ere euskarazko eskaintza duten autoeskoletan mapa; 160 zentro baino gehiago ari dira horretan Euskal Autonomia Erkidegoan.

Eta webgunea horretan salteatzen dutenek topatuko dute baita ere eskaintza erakargarri bat, izan ere, gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz prestatu eta egiten dutenen artean bi ziklomotor elektriko zozkatuko dituzte abenduaren 3ean, Euskararen Nazioarteko Egunean. Antolatzaileek jakinarazi dute, azterketa teorikoa euskaraz egin dela egiaztatzeko ziurtagiria eskatuko dutela. Zozketan parte hartzeko unean eginda ez dutenek hiru hilabete izango dituzte hori aurkezteko, aipatu zozketaren ondoren.



Hegoi Lizaso, sarituetako bat.

## "Erosoa eta naturala" egin zaie honetarako ere euskaraz ikastea

Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz egin eta gainditu izanagatik sarituak izan diren hiru ikaslerekin hitz egin dugu, prozesuan zehar nola sentitu diren eta urratsa zergatik egin duten jakiteko: Endika Rekondo Murua hernaniarra, Hegoi Lizaso Lopez urnietarra eta Saray Hernandez Etayo usurbildarra.

Hiruen ama hizkuntza da euskara eta betidanik ikasi dute hizkuntza horretan. Beraz, "erosoa eta naturala" egin zaie prozesua mintzaira horretan burutzea eta gustura jardun dira. "Egia da gidabaimena ateratzea erronka dela eta ikasteari denbora eskaini behar zaiola, baina euskaraz egiteak lagundu dit edukia hobeto ulertzen eta konfiantza gehiagorekin prestatzen", aitortu du Rekondok. Hernandez ere ederki moldatu da, nahiz eta onartu duen "kontzeptu tekniko batzuk" barneratzea zertxobait kosta zaiola.

Gidabaimena atera nahi eta hizkuntza aukeratzekoan zalantzatan dabiltzainei prozesua euskaraz egitea gomendatu diete hiruek: "Ingurukoei ari naiz atal teorikoa euskaraz egitea aholkatzen, batez ere, txikitako hizkuntza hori dutenei. Niretzako, txikitatik erabilitako hizkuntzan azterketa hori egitea errazagoa izan da eta beste askorentzat ere horrela izan daitekeela uste dut", azpimarratu du Lizasok.

# Dirulaguntza zuzena emateko bidea urratzen hasi dira eskualdeko udalerriak

Euskara "eguneroko esparru praktikoetan egon dadin erraztea" da helburua.

Hamasei urteko ibilbidea urratu duen Gidabaimena Euskaraz egitasmoari beste buelta bat eman eta parte hartzea sustatze aldera, dirulaguntza zuzenak ematen hasiko dira Andoain eta Lasarte-Oria. Aurrera begira, aukera hori ezartzea aztertuko dute datozen hilabeteetan Astigarragak eta Hernanik ere. Era batera edo bestera izanda ere, sei udalerrietako ordezkariak argi utzi dute erraztasunak ematen jarraituko dutela gidabaimenaren atal teorikoko az-

terketa euskaraz egin nahi duten herritarrei.

Sistema hori ezartzen aitzindaria Lasarte-Oriako Udala izan da. Bertako euskara zinegotzi Estixu Alkortaren hitzetan, neurri hori udalak hizkuntza normalizaziorako duen strategiaren barruan sartzen da, euskara "eguneroko esparru praktikoetan ere egon dadin errazteko". Azterketa teorikoa euskaraz ikasi eta egiteak "espazio berrietan hizkuntzaren erabilera indartzen" lagun-



Lasarte-Oriako Udala izan da sistema berriaren aitzindaria. TXINTXARRI

tzen duela aitortzearekin batera.

Hori horrela, Lasarte-Orian erroldatuta dauden eta gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen dutenei 500 eurora arteko beka ematea aurreikusten da. Udalak azterketa teorikoaren matrikularen kostua ordainduko du, prestakuntza prozesu horretan hizkuntzaren erabilera bultzatuta. Udalerri horretako BideOn eta Mugica autoeskolet

ongi baloratu dute egitasmoa. Formazioa hizkuntza bat baino gehiagotan eskaintzeak dakarren ahalegina azpimarratu dute, baita "ikasleentzat euskarazko baliabideak izatearen garrantzia" ere. Era berean, esan dute gisa horretako ekimenek hezkuntza eta lanbide esparruan hizkuntzaren erabilera normalizaten laguntzen dutela.

Andoainek zehaztu ditu dirulaguntza zuzenak emateko baldintzak.

## Zer lagunduko dute diruz?

Gidabaimenaren atal teorikoaren matrikularen kostua (AM, A1, A2 eta B lizentzien azterketa egin eta gainditzea).

- Andoainen: Gastuaren % 50a, gehienez 180 euro eskatzaile bakoitzeko.
- Lasarte-Orian: Gehienez ere 500 euro pertsonako.

## Bete beharreko baldintzak

- Andoainen edo Lasarte-Orian erroldatuta egotea.
- Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz atera izana frogatzea egiaztagiri bidez.
- Udalekin zorrik ez izatea.

## Epeei eta eskaera moduei buruz

- Andoainen: irailaren 14tik urriaren 30era (biak barne).
- Lasarte-Orian: urtarrilaren 1etik irailaren 30era (biak barne). Beharrezko agiriak: eskaera orria, matrikularen ordainagiria, atal teorikoa gainditu izanaren agiria eta kontu korrontearen titulartasun ziurtagiria.

## Eskualdeko beste udalerrietan, zer?

Buruntzaldeko udalerri gehienak prest daude dirulaguntza zuzenak emateko bidea urratzeko, bakoitzak bere erara. Hernani eta Astigarraga ari dira aukera hori aztertzen eta informazio gehiago emango dute aurrerago. Moduak modu, denek segiko dute erraztasunak ematen.

# ZOZKETA GIDATU EUSKARAZ

@GIDABAIMENAK\_EUSKARAZ



[gidabaimenakeuskaraz.eus](https://gidabaimenakeuskaraz.eus)





Erraldoiak eta konpartsak Kalezarren ibiliko dira kalejiran.

## Lauburu konpartsakoeak Kalezar aztoratuko dute larunbat honetan

Iaz, lehen aldiz izan ziren erraldoiak eta buruhandiak Kalezar aldean, Lauburu konpartsaren eskutik. Aurten, berriz hurbilduko dira, gaztetxoek gozameneko.

Lauburu konpartsak eta Usurbilgo Udalak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten 2025ean. Akordio horren bai-

tan, Usurbilgo festetan lau irteera egitea adostu zuten eta gainerako herri eta auzoetako jaietan irteera bana.

### Ekainak 20, larunbata

- 18:00 Herriko dantzariak.
- Ondoren, erraldoi eta buruhandiak Lauburu konpartsaren eskutik.



Eguraldiak laguntzen badu, Egurtzegi pareko parkean egingo da tailerra. ZIRKUOLA

## Zirkuola zirku tailerra antolatu dute lehen aldiz

Oilasko biltzaileen irteerarik ez da izango aurten. Horren ordez, Jai Batzordeak zirku tailer bat prestatu du gaztetxoentzat.

Interesa duenak, kontuan har dezala parte hartu ahal izateko aldeaz aurretik eman beharko duelako izena Usurbil Kulturaren web orrialdean.

### Ekainak 20, larunbata

- Zirkuola zirku-tailerra gaztetxoentzat.
- Izen-ematea aldeaz aurretik egin behar da usurbilkultura.eus web orrialdean.
- Orduetgia: 11:00-13:00.
- Tokia: Eguraldiak laguntzen badu, Egurtzegi aurreko parkean egingo da.



# Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

943 634 536 [www.goieko.com](http://www.goieko.com)



Harri Agirresarobe eta Oibar Olano, iazko eskean.

## Oibar Olanok eta Harri Agirresarobek abestuko dute San Joan eskean

Harri Agirresarobek etxean abestuko du eta, iaz bezala, Oibar Olano asteasuarrarekin batera arituko da bertsoan.

Harri Agirresarobek Herriarteko Bertso Txapelketan abestu du aurten, Añorgako taldean.

Harrik bezala, Oibar asteasuarrak ere Herriarteko Ber-

tso Txapelketan hartu du parte, Aiztondo taldean. "Esperientzia polita izan da. Beldur pixka bat nuen, esperientzia berria izateaz gain, ikusle asko zegoelako". Aiurri astekarian egin zioten elkarriketa batean irakurri dugunez, bere herriko bertso eskolan aritzen da kantari.



Iazko toki berean piztuko dute San Joan bezperako sua.

## San Joan sua, haur parkearen azpialdeko zelaian

San Joan suak kokaleku ezberdinak izan ditu azken urteotan. Aurten iazko toki berean piztuko dute: haur parkearen azpialdeko zelaian.

### Segurtasun aholkuak

Iaz, segurtasun neurri zorrotzak hartu ziren. Batetik, belardi osoa hesitu zen, eta hesiak

zeharkatu eta belardiko eremura sartzea debekatu zen.

Bestalde, iazko oharra ere balekoa izango da aurtengorako: "ezingo dira sutara paperak jaurti, hauek arriskutsuak dira, haize pixka batekin airea joaten dira eta. Gainera, zabor asko sortzen da, eremua zikinduz".



TXAPELDUN ARDANGELA · Muna Lurra Kalea, 2 USURBIL · 943 49 88 83

# Ostiral honetan hasi eta ekainaren 24ra arte luzatuko da jaia

Bost jai egun eta hamaika ekitaldi. Jai Batzordeak mimo handiz prestatu du aurtengo egitaraua.

## Ekainak 19, ostirala

- 17:00 Buruhandiak.
- 18:00 Txupinazioa, jaien hasiera.
- Ondoren, auzotarren arteko herri kirolak.
- 20:00 Auzo afaria.
- 00:00 Kontzertuak: Oilar Beltzak + Ganibet + Xsakara.

## Ekainak 20, larunbata

- 11:00-13:00 Zirkuola zirku-tailerra (aurretik izena eman behar da usurbilkultura.eus-en)
- 16:00 Musa (izena ematea 15:30ean hasiko da).

- Auzoko plazan, Gorritiren Showa.
- 18:00 Herriko dantzariak.
- Ondoren, erraldoi eta buruhandiak Lauburu konparatsaren eskutik.
- 00:00 Kontzertuak: Bide Batez + DJ Tintz.

## Ekainak 21, igandea

- 10:30 Umeen krosa (izen ematea 10:00etan hasiko da).
- 11:30 Jolasak.
- Ondoren, buruhandiak.
- 14:00 Umeen bazkaria: jantaria norberak etxetik ekarrita,



Sardina eta sagardo dastaketarekin amaituko da jai egitaraua.

edaria eta postrea Jai Batzordearen kontu.

- 16:00 Tailerrak.
- 18:30 Txokolatada.
- Ondoren, buruhandiak.
- 19:30-21:00 DJ Gorka Mendi.

## Ekainak 23, asteartea

- 15:00 San Juan eskearen irteera.
- 22:00 San Juan sua.
- Ondoren, eskearen jarraipena.

## Ekainak 24, asteazkena

- 11:00 Meza nagusia.
- Ondoren, toka txapelketa.
- 16:30 Buruhandiak.
- 18:00 Sardina eta sagardo dastaketa Saizar Sagardotegiaren eskutik, Ostolaza eta Larrañaga trikitilariak giro-tuta.

Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea.

**ANDATZA TABERNA**

**EGUNEKO MENUA**  
**ASTEBURUKO MENUA**  
**KARTA**  
**RAZIOAK**  
**OGITARTEKOAK**

**8:00-23:00** Igandetik Ostiralera  
**8:00-00:00** Larunbatetan

*\*Sukaldea 22:00etan ixten da*

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027

**LARRAÑAGA PLASTIKOAK E.A.**

**INDUSTRIARAKO PIEZA MOLDAKUNTZA**

Ugaldea industrialdea, 1. USURBIL  
Telf: 943 36 14 46 / 943 37 33 05  
Fax: 943 37 70 01  
admon@larranagaplasticos.com

# "Hil Arte Bizi!" garela ospatu du Iñurri elkarteak

Uda giro beteko ospakizuna egin zuen Iñurri elkarteak ekainaren 14an, Artzabalgo frontoian.

Iñurrietako baten liburu aurkezpenarekin ekin zioten iñurrien egoitzan. Haurrei zuzenduriko jolasek edota "tribua-aren loratzea" irudikatutako tailerrak eman zioten ekimenei segida gero, Artzabalgo

frontoian. Arropa eta osagarrien bilduma berria aurkeztu eta erosteko moduan jarri zuen Iñurrik. Jendetza batu zen postuaren bueltan. Ondoa, amaitzen ari ziren jada ikusgai duzuen Usurbilgo horma-iru-



Artzabalaren bildutakoak, Esanezin taldeak eskainitako emanaldiaz gozatzen.

di berria; "hil arte bizi" dioena. Esanezin taldeak musikatu eta omendutako Ktxo pizze-

riakoen jakiek osatu zuten arratsalde parteko ospakizunaren eskaintza.



"Hil arte bizi" dioen horma-irudi berria ikusgai duzue Artzabalgo frontoian.



Iñurrietako batek sortutako liburu aurkezpenarekin ekin zioten ospakizunari.



Iñurriei eginiko ekarpenagatik Ktxo pizzeriakoei eginiko eskertza.



Jendez gainezka Iñurriren postua, bilduma berria eskuratu nahian.

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
· eguneko menua · asteburuko menua  
· oilasko erreak, ogitartekoak, raziak..  
paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

**NOAUA TXIBI S.L**  
KRISTALDEGIA  
· komertzial instalazioak · beira bikoitza · segurtasun beirak · ispiluak  
· dutxa-itxiturak eta irristailuak · barandak · kristal mota guztiak..  
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**EGIN ZAITEZ  
BAZKIDE!**  
www.noaua.eus



Usurbil F.T.-ren 50. urtemugako erakusketak ikusmina eragin zuen, ireki zuten unetik bertatik.

# "Etorkizunari ilusioz begiratzeko aukera bat da"

50 urte betetako Usurbil F.T.-ren mende Erdiko ibilbidea irudi eta hitzen bidez jaso dute, ekainaren 28ra arte (18:00-20:00 artean) Sutegin ikusgai izango duzuen erakusketan. Orain arte eginikoez nahiz aurrera begira hausnartzeko parada eskaini nahi du ekimenak.

## ARITZ LASARTE

Ekainaren 12an ireki zuten, Sutegi atarian futbol taldean dauden musikarien girotzearekin. Beste ezer baino lehen, eskertza helarazi nahi izan zieten klubaren sortzaileei, bilguneak 1976tik gaur arte bidelagun izandako guztiei. Erakusketari zegokionean, Usurbil F.T.-ko zuzendaritzatik iragarri moduan, "argazkiak ez ezik, oroitzapenak, emozioak eta klubaren historia ere" biltzen du. "Irudi bakoitzak, une, ahalegin, garaipen, porrot, ospakizun edo amets partekatutako bat irudikatzen du". Horiek guztiak eragindakoak, bost hamarkada hauetan auzolaneari aitortutako guztiak

izan dira. Izan ere, "50 urte ez dira egun batetik batera erakitzen. Jokalarien belaunaldien, entrenatzaileen, zuzendarien, bazkideen, familien eta zaleen dedikazioaren emaitza dira, klub hau honaino iristea ahalbidetu dutenak. Horiei esker, kirol erakunde gisa ez ezik, familia handi gisa ere hazi gara,

**"OROITZAPENAK, EMOZIOAK ETA KLUBAREN HISTORIA BILTZEN DUEN ERAKUSKETA DA"**

kolore eta balio berberekin elkartuta".

## Aurrera begira

Bidaia bat proposatzen du Sutegiko erakusketak. "Ibilbide honek gure jatorria gogoratzea, une ahaztezinak berpiztea eta klubean arrastoa utzi duten pertsona guztiei

**"KLUBEAN ARRASTOA UTZITAKO GUZTIEI OMENALDIA EGITEA AHALBIDETUKO DIGU"**

omenaldia egitea ahalbidetuko digu". Halere, ez da iraganari begira dagoen erakusketarik soilik. "Aldi berean, etorkizunari ilusioz begiratzeko aukera bat da, jakitun baikara, gure historiari orrialde garrantzitsuenak oraindik idazteke daudela". Erakusketako irudi bildumak "nondik datozen gogoratzen, lortutako guztia baloratzen eta elkarrekin lan egiten" lagunduko dietela eman zuten aditzera, "gure klubak urte askotan hazten jarrai dezan. Eskerrik asko guztioi, gurekin egotea-gatik!".

## Ezkutuko lanari gorazarrea

Futbol taldeen bilgunearen baitan, erakusketak hau antolatzeke lantaldea osatu zuten Manu Urbietak, Asier Dominguezek, Pablo Perezek eta Mikel Urkiak. Haien esanetan, "erabili nahi izan dugu erakusketak hau, bai protagonista izandako eta batez ere, kluba aurrera ateratzeko ardura hartu duten guztien omenaldi gisa, haiek gabe hemen ez ginatekeelako egongo 50 urte ospatzen. Beraz, eskerrik asko!". Hamarkadaka egituratu dute erakusketak. Materiala biltzerakoan, "hasierako argazkiak kostatu zituzten biltzea, bukaerakoak ez hainbeste". Gogora ekarri zuten, jokalariek soilik agertzen zirela garai batean irudietan, futbol kluba aurrera eramatea ahalbidetuzko gainerako kideak ezkutuan geratzen zirela. Haiei eskaini nahi izan zieten 50 urteotako gorazarrea. "Argazkietan agertzen ez diren horiei omenaldi bat" egitea nahi dute. Horrekin batera, futbolak urteotan hartutako dimentsioz gain, aurrera nola egin hausnartzeko tarte ere eskainiko du erakusketak, pil-pilean den kirol hastapenean arreta jarrita. Urbietak garrantzitsutzat jo du, garai horretan "haurren garapena erdigunean kokatuta, kirol eragileok eskaintza bateratuarekin eskutik joatea".



Usurbil F.T.-ko emakume beterranoak. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO



Usurbil F.T.-ko gizon beterranoak. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

# "Poza eta nostalgia sentitu nituen"

Usurbil F.T.-ren beterranoek partida bana jokatuko dute larunbatean. Gizonezkoek Realaren beterranoen aurka jolastuko dute; eta emakumeek, haien artean jolastea erabaki dute.

## ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

Usurbil Futbol Taldearen 50. urteurrena ospatzen ari dira, eta hainbat ekintza antolatu dituzte urtean zehar. Horietako bat, neska eta gizon beterranoen partidak antolatzea izan da. Larunbatean, ekainaren 20an, Haranen jolastuko dituzte partidak.

Emakumeek haien artean jokatzea erabaki dute, eta gizonezkoek, aldiz, Realaren beterranoen kontra jolastuko dute. Goizari hasiera emateko, lehen partida emakumeek jolastuko dute goizeko 10:00etan, eta ondoren, 12:00etan gizonezkoek.

Aroa Alkortak emakumeen arteko partidari jolastuko du, eta hasieran "poza eta nostalgia sentitu" zituela aitortu du. Ez zuen uste haien taldea aterako zutenik: "Uste ez genuen arren, arrakasta izan du eta neska pila batek izen eman genuen".

Jokin Zubiaurrek, jolasteko ilusio handia duen arren, lesio batek zelai kanpo utziko du larunbatean. "Ikaragarriko ilusioa egin zidan", azaldu du Zubiaurrek, eta deia jaso zue-

nean forman zegoela aitortu du. Lesioak direla medio, orain, entrenamenduetara joatea baino ez zaio geratzen giroa ikusteko. Eneko Harreguyk, zelaian berriro zapaldu zue-nean "ume bat bezala" sentitu zuela esan du.

Bi beterranoen taldeak larunbat honetarako sortu diren arren, biak ala biak etorkizunean entrenatzen jarraitu dezakete. "Berotzen hasi dira etorkizuneko zerbait bihurtu dadin", Ainara Nievesek adierazi duenez; baina Ainhoa Torcidak Nievesek duen irrika hori apaldu nahi izan du: "Printzipioz larunbateko partida jokatuko dugu, eta gero ikusiko dugu".

Gizonezkoek galdetuta, haiek ere esperantza txiki bat dute etorkizunean ere jolasten ja-

**"BEROTZEN HASI GARA, TALDEA ETORKIZUNA DUEN ZERBAIT IZAN DADIN"**

AINARA NIEVES

rraitzeko. Harreguy eta Zubiaurre prest daude konpromisoa hartzeko. Harreguyk azaldu duenez, lehenengo entrenamendura joan zirenean zerbaiten hasiera izan zitekeela azaldu zien presidenteordeak.

Dena den, Zubiaurrek arazoak ikusten ditu. Izan ere, Usurbil F.T.k talde asko ditu, eta entrenatzeko tarte bat lortzea "zaila" dela aitortu du. Gainera, bai emakumezkoen bai gizonezkoen beterranoen taldea aterako balitz, Zubiaurreren kasuan zaila izango zen, bere bikoteak ere nesken taldean jolasten duelako.

## Gaztetasunera buelta

Elkarrizketatu guztiei gazte zireneko oroitzapenak etorri zaizkie burura Harane berriro

**"POLITA IZAN DA ASPALDI IKUSTEN EZ GENUEN JENDEAREKIN ELKARTZEA"**

ENEKO HARREGUY

ere zapaldu dutenean. Nievesek "gazte" sentitu dela aitortu du, eta Torcidarentzat, errutinatik ateratzeko balio izan diola esan du, eta lehen zen neska hori sentitu dela.

Alkortak buelta "ona" izan dela uste du, hogei urte zera-matzalako futboleko jolastu gabe, baina burua eta gorputza bat ez doazela dio: "Burua azkar doa eta gorputza ez doa hain azkar. Buruak gauza bat nahi du, baina gorputzak ez du erantzuten". Hala ere, futbolera bueltatzea "aparta" izan dela esan du, eta futbolera bueltatzea eta jendearekin egotea ondo egon dela gehitu du.

Gizonezkoek ere lehenagoko garaia gogorarazi dizkietela onartu dute. Harreguyk buelta polita izan dela argitu du: "Polita izan da duela hogei urte elkar ikusten ez genuen jendea berriro ere hemen (Haranen) elkartzeara".

Nolanahi ere, adin tartea oso zabala dela nabarmendu du Zubiaurrek: "Adineko dagokionez, 37 urteetatik 59 urteetarako jendea dugu taldean. Adin desberdineko jendea elkartu gara".

Taldeak adin desberdinetakoak izanda ere, Kalezarreko festetan hirugarren denbora egingo dutela esan du Alkortak: "Partidaren ondoren, hirugarren denbora ere egingo dugu Kalezarreko festak direla aprobetxatuz". Gainera, ondo pasatzea espero dute, eta inork minik ez hartzea nahi dute.



Amaia Zubiria, Zubietako kantaria omendu zutenekin batera, Mikel Laboa plazan eginiko ekitaldi amaierako argazkian.

## Merezitako eskertza eta aitortza, Amaia Zubiriari

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak Amaia Zubiria omendu zuen ekainaren 13ko kantu-jira bereziaren amaieran.

### ARITZ LASARTE

Udaurreko azken kantu-jira berezia, tarteka egin ohi duten euskal abeslari baten saio monografikoan bilakarazi zuen Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak. Amaia Zubiriari eskainitakoa izan zen herri erdigunean eginiko bira. Haren 60 urteko ibilbide oparoko 25

kantuekin osaturiko liburuxka eskuartearen, Zubietako kantariari gorazarre egin nahi izan zioten. Abestiokin egin zioten gero harrera protagonistari. Izan ere, Errioxan bizi den herrikidea bisitan izan genuen hilaren 13an. Merezki bezala omendu zuen Kantu Taldeak. "Egindako ekarpen artisti-

ko-kulturala eta zure ahots eta kantu ederrak gogoratu, erori eta berriz altxatzen lagundu diguzulako, gure esker ona", adierazi nahi izan zioten. Zapia jantzi zioten lepondoan. Usurbilgo Udalaren aldetik, Manu Urbietak ondu eta "elkar lotzen gaituzten ametsen alde" mezua zeraman sortze lana jaso zuen. "Euskara plazaratzea zaila zen garai hartan" Zubietakoak eginiko ekarpena nabarmendu zuen Jon Mikel Azpiazu kultur arloko zinegotziak. Zubietako herriaren partetik ere merezitako gorazarrea jaso zuen Zubiriak. "Euskal musikaren historian arrasto sakona utzi duzu zure ahotsarekin, zure sentiberatasunarekin eta zure lan ne-

kezarekin". Askotariko eskertza helarazi zioten, "belaunaldi askoren bihotzetara iritsi", "emakume askorentzat erreferentzia eta inspirazioa izan" edota "euskal kulturaren eta gure hizkuntzaren alde" egindako lan eskergagatik. "Milesker Amaia, gure bihotzak, musikaz eta emozioz betetzeagatik, zure ahotsa gure ondarearen parte da. Zubietatik milesker!".

### Transmisioa

"Bihotz-bihotzez" hartu zituen Zubiriak jasotako hitz eta opariak. "Usurbil maitagarria dut, maite dut betidanik, Zubieta ere bai, baina gauzak gertatzen dira gertatzen diren moduan". Benito Lertxundi bere idoloztat jo zuen, hari zor dio bere esanetan, transmisioa; euskaraz abestu ezin zen garaian geure hizkuntzan kantatzen aritu izanagatik. Bere azkeneko bi abestiak, "migrante umiliatuei" eskainitako "Ihesean gatoz" etalanda-eremuko emakumeei zuzenduriko "Ema legez" izenekoak kantatu zituen omenaldian. Elkarrekin abesten amaitu zuten hitzordua.

## "ERORI ETA BERRIZ ALTXATZEN LAGUNDU DIGUZULAKO, GURE ESKER ON ETA MIRESMENA"



Oroigarria jaso zuen Amaia Zubiriak Usurbilgo Udalaren partetik.



Kantuan amaitu zuten, Amaia Zubiriari ekainaren 13an eginiko omenaldia.



Pediatria zerbitzu duina bermatzea galdegiteko, ekainaren 11n Donostia ospitalaren atarian eginiko elkarretaratzea.

# "Usurbilen pediatria zerbitzu duina orain!"

Usurbilgo anbulatorioan pediatria duina exijitzeko elkarretaratzea egin zuten ekainaren 11n, Donostia ospitalaren atarian. Deialdiak, herrikideak, gurasoak, haurrak, eta haien senide eta lagunak bildu zituen.

## ARITZ LASARTE

"Pediatria zerbitzu duin bat ez dela pribilegio bat, gure seme-alaben oinarrizko eskubidea dela eta horren alde borrokan jarraituko dugula" adierazi zuten Donostia ospitale atariko mobilizazioaren bidez. Usurbilgo herritarrek zituzten deituak hitzordurako, baina baita inguruko herrietakoak ere, "argi dugulako egoera hau ez dela Usurbilgo anbulatorioko arazo isolatua, osasun sistema publiko osoari eragiten dion arazoa baizik". Elkarretaratzeari atxikimendua

adierazitakoen artean ziren, aipatu herritarrez gain, Olatu Txuria osasungintza publikoaren babeserako inizatiba hiritarra edota Donostialdeko Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataforma. Azken bilgune horretako kideak bertan izan ziren. Mobilizazio horrekin bat egiteaz gain, eskualde honetako osasun zerbitzuek bizi duten egoeraren berri eman eta deituak dituzten hurrengo mobilizazioetan parte hartzeko gonbita egin zieten. Ekainaren 18an 17:30etan Lasarte-Oriako an-

bulatorio atarian mobilizatzeko deia egin dute.

## Arartekora

Urrats gehiago ere eman dituzte azkenaldian, "gure herriko pediatria zerbitzuaren egoerak konponbiderik gabe jarraitzen duelako. Aldi berean, egoeraren larritasuna ikusita eta orain arte ohiko bide administratiboetatik jasotako erantzun eza dela eta, Arartekora joko dugu". Gogoan izan, ekainaren 5era arte udal instalakuntza hainbatetan Arartekoari helaraziko dioten gu-

tuna eskuragarri jarri zuten atxikimendua adierazteko, aipatu eskutitza hala egiten zuten guztien izenean bidaltzeko.

Iazko apirilean geratu zen etenda pediatria zerbitzua Usurbilgo anbulatorioan. Gero, zerbitzu hori erdizka berrezarri arren, "2025eko apirilaren 1etik urtebeteko epean haurrak artatzeko eta diagnostikatzeko prestakuntza duen profesional baten presentzia 98 lanegunetan bakarrik bermatu da. Hau da, urteko 261 lanegunetatik %37an, eta ez beti jardun osoan. Zerbitzurik eskaini ez den egunetan eman zaigun alternatiba Lasarte-Oriako anbulatorioan artatuak izatea edo larrialdi zerbitzuetara joatea izan da".

Arazoak konpontzeke jarraitzen du. "Usurbilen 0-14 urte arteko 663 haurrek pediatria zerbitzua erabiltzeko eskubidea duten arren, gaur egun, hilabete bakoitzeko azken astean oraindik ez dakigu hurrengo hilabetean pediatria zerbitzurik izango dugun, eta are gutxiago zerbitzu hori noiz emango zaigun". Bistan denez, "zerbitzuak ezegonkorra izaten jarraitzen du, beraz; profesionalen faltak, dagoen profesional gutxi horien erroztazio handiak eta antolaketa arazoek zuzenean eragiten die gure seme-alabek jasotzen duten arretari".

**"ARGI DUGU, EGOERA HAU EZ DELA USURBILGO ANBULATORIOKO ARAZO ISOLATUA"**

 943 361 182  
**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN

**943 360 321**

[noaua@publizitatea.eus](mailto:noaua@publizitatea.eus)

  
**Otar-Goxo**  
Elkargaiak  
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

### Usurbil K.E.-ren bazkideen batzarra

Ekainaren 20rako deitu dute 10:30ean Potxoenean. Gaiok jorratuko dituzte:

**Gai-zerrenda**

1. puntua: Lehendakariaren agurra.
2. puntua: 2025/2026 denboraldiaren kirol balantzearen aurkezpena, eta onarpena, egoki bada.
3. puntua: 2026/2027 denboraldiaren kirol aurreikuspenen aurkezpena, eta onarpena, egoki bada.
4. puntua: Diru-kontuak. 2025/2026 denboraldiko balantzea eta 2026/2027ko aurrekontuaren aurkezpena, eta onarpena, egoki bada.
5. puntua: Zuzendaritza Batzordearen proposamenak.
6. puntua: Bazkideen proposamenak.
7. puntua: Galdera-eskaerak.

### Usurbil F.T.-ren 50. urteurren bazkaria

Ekainaren 27an Agerialdeko frontoian batuko dira, 14:30ean. Aurrez eman behar da izena eta horretarako epealdi ofiziala zabalik dagoela jakinarazi du orain Usurbil F.T.-k, ekainaren 18ra arte. Futbol taldeak tramitazio hori bideratzeko galdetegi bat eseki du haien sare sozialetan. "Aurre izen-ematea betetakoe lehen-tasuna dute galdetegi ofizial hau betetzeko", ohartarazi dutenez. Aurre izen-emate hartan zehaztutako txartel kopurua aldatzeko aukera izango dela jakinarazi dute. Aurrez izena emandakoekin aurreikusitako lekua erabat beteko ez balitz, "galdetegi hau zabalduko dugu aurrerago eserlekuak bete arte", argitu dutenez. Argibide gehiago jasotzeko usurbil.uft@gmail.com helbidera idatzi.

### Udako ordutegia udal liburutegian

Dagoeneko garai horri begirako lehen xehetasunak eskaini ditu Sutegi udal liburutegiak. Hasteko, ekaineko larunbatean itxita egongo da udal liburutegia. Ekainaren 24ra arte, orain arte bezala, goizez eta arratsaldez irekiko dute astelehenetik ostiralera: 10:00-13:00 / 16:00-19:30.

**Ekainaren 25etik 30era itxita egongo da**

Aldiz, ekainaren 25etik 30era itxita egongo da Sutegi udal liburutegia. Urtero moduan, tarte bat hartuko dute barruko lanetarako.

**Uztailaren 1ean, udako ordutegia**

Uztailaren 1etik aurrera udako ordutegia izango dute indarrean. Udako ordutegi horri buruzko xehetasunen berri aurrerago jakinaraztekotan dira.

### Dantzari lotutako deialdiak


**Orbeldirekin dantza poteoa, ikasturtea borobiltzeko**

Ikasturte hau borobiltzeko dantza poteoa antolatu du Orbeldik ekainaren 18an. 18:30ean abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. "Gerturatu zaitetz dantzara Orbeldiko helduen taldeekin batera. Kalejiran, plaza dantzak egingo ditugu elkarrekin dantzatzeko".

**"Bizi dantzan!", dantza garaikide taldearen eskutik**

Usurbilgo dantza garaikide taldeak urtean zehar eginiko lanketa plazaratzeko emanaldia antolatu du ekainaren 26an, 19:00etan Sutegi atarian. "Mugimendua, sormena eta inprobisazioa gorpuzten dituen dantza pieza. Usurbilgo Dantzalab, dantza laborategiko ikasleek eskainia".

## Zer da?




Ikusi al duzu halakorik inoiz? Nola deitzen diozu zuk? Hizki zopa honetan haren izen batzuk aurkituko dituzu. Honoko hauek:

- TRIKUA • KIRIKOLATZA
- XARROBIA • KIRIKIÑOIA
- SAGARROIA • KIRIKIOIA
- SAGARRERROIA

### SUDOKUA

T	R	I	K	U	A
A	U	K	T	R	I
U	A	T	I	K	R
I	K	R	U	A	T
R	T	U	A	I	K
K	I	A	R	T	U

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak TRIKUA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (T, R, I, K, U eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



### BadaKit!

Begira zer egin duen trikuak azkonarra ikusi duenean: bere gorputzean bildu, eta arantzaz beteriko bola bihurtu. Zure ustez, zergatik egin du hori?

Arniskua sentitu duenez, bere burua babesteko

Nahi gabe egin du


Harekin jolastu nahi izaten duelako

Sabelean ferekek nahi dituelako

Inoiz ez du halakorik egiten

Azkonarraren kiratsak giharrak uzurtu dizkielako

## aldea dago!



Aurkitu bi trikuen artean dauden aldeak. 9 dira guztira.

Hauxe aurkitu beharko zenue Olatz kirikolatzaeren etxearren inguruan:

-  6 euli
-  4 zizare
-  3 barraskilo
-  2 sorgin-orratz

## Miren Olatz

## Kirikolatza

## Beldurtiarren Baratza





Margotu

Trikuek ez dituzte bide-seinaleak ezagutzen. Horregatik, bidean ikusten badituzu, pasatzen utzi. Eta orain, margotu irudia zure gustura.

'Plazan Bazan' 12/13. orrialdeetako denborapasen soluzioak.

## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Kirol-esparruko gazteei edo irakasleei alokatzeko gela bat daukat Usurbilen. 658706447

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943498917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

## EROSI

Usurbilgo erdigunean etxe bat erosi nahiko nuke. Ahal dela bi logelakoa. 615007418

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## GARAJEAK

## SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzailer bila dabil. 627841927.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Garbiketa eta zaintza lanak egiteko prestutasuna eta esperientzia dauzkate. Interna moduan, orduka, gauzez edo egunez, astebukaeratan. Ikasketa homologatuak eginda. Harremanetarako: 624082492

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen

dut nire burua. Harremanetarako: 747 446 091.

Lan bila nabil. Edozein lanetan aritzeko prest. 611 22 94 65.

Lan bila nabil. Lanerako gogotsu. 677 257 929.

Garbiketa lanak, haur zein pertsona helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila dabilen neska bat naiz. 604302785

Garbiketa arloan edo pertsona helduak zaintzeko prest. Titulu sozio-sanitarioa daukat. 627879720.

Externa zein interna bezala lan egiteko prest. Edo garbiketa lanak egiteko. 676 282 206.

## BESTELAKOAK

Reiki saioak eskaintzen ditut. Harremanetarako: 677086147.

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu senitarteak eta lagunak:

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

## Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## Mende beteko bizi ibilbidea osatu du



Miren Errekondok 100 urte bete ditu eta Udalaren lore sorta eta oparia jaso ditu.

Ekainaren 4an Miren Errekondok 100 urte bete zituen. Egun hartan, lore sorta eta

Zumetaren lamina bana jaso zituen Joxe Mari Lizaso zinegotziaren eskutik.

## Pilota partidak

**Ekainak 18, osteguna, 19:00 Usurbilen:**

Gazte mailako txapelketa:  
-Pagazpe(Aburuza-Alejo)  
-Behar zana (Zufiria-Cestau)

**Ekainak 19, ostirala, 18:30 Usurbilen:**

Usurbilgo LIII. nagusien txapelketako finalerdia:  
-Santxo-Urruzola (Pagazpe/Behar zana)  
-Sasiain-Arroita (Abantzu/Lemoa)

-Txoperena-Goikoetxea (Leitza)  
-Galartza-Galartza (Larraun)

## Infantilak, 3. Maila

Gipuzkoako udaberri txapelketako finala jokatu du Pagazpe elkarte Jon Harreguy-Joanes Ostolaza bikoteak.

Ekainak 19 ostirala, 19:00

2. partida Ordiziako Beti Alai pilotalekuan:  
Pagazpe 1.-Gazteleku.

## Julen Lejardi eskubaloï kanpua, ekainaren 22tik 26ra

Julen Lejardi eskubaloï kanpua antolatu du Usurbil K.E.-k. Aurtengo edizioa ekainaren 22tik 26ra izango dela iragarri du Usurbil Kirol Elkarteak, 09:00-12:30 artean. Lehen Hezkuntzako eta DBH 1-2 mailetakoei zuzendua egongo da. Izen-ematea zabalik dute esteka honetan: <https://forms.gle/gWvYsDbLQuSLLUhh9>

## Matrikulazio garaia zabalik da Usurbil KE eskubaloï taldean

2026-27 denboraldian parte hartu nahi dutenek ekainaren 19ra arteko epealdia dute matrikulatzeko. Horretarako galdetegi hau bete behar da: <https://forms.gle/iH8jJRPoFC-qEj3M27>

Aurrerago ate irekien saioa antolatzeak dira. Argibide gehiagorako: [usurbilkirolelkar-tea@gmail.com](mailto:usurbilkirolelkar-tea@gmail.com) / 610 003 227.

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTIRALA 19

### USURBIL Jakin Jardunaldia

"Euskara esanindartzeko bidean: adierazkortasuna euskaraz lantzeko eztabaidak, gakoak eta hautuak". Informazio gehiago eta izen-ematea: ueu.eus. Antolatzaileak: Udala, Jakin, UEU. 09:15-14:30 Artzabalen.

### USURBIL Usurbilgo jaiak: zikiro janerako txartelen salmenta

Uztailaren 4a egingo da zikiro-jana. Helduek, 30 euro. Gazteek eta langabetuek: 20 euro. 19:30 Aitzaga elkartearen.

### KALEZAR Jaiak

Ikus 18. orrialdea.

## LARUNBATA 20

### USURBIL Usurbil K.E.-ren bazkideen ohiko batzarra

2025/2026 denboraldiaren kirol balantzearen aurkezpena  
2026/2027 denboraldiaren kirol aurreikuspenak.  
10:30 Potxoenean.

### KALEZAR Jaiak

Ikus 18. orrialdea.

## IGANDEA 21

### KALEZAR Jaiak

Ikus 18. orrialdea.



Batukada feministak hartuko du parte Emakumeen Etxeko kalejiran.

## Ostegun honetarako hiru kalejira antolatu dituzte

### Zumarteko ikasleen kalejira

17:30 Musika Txokoa, Musika Mintzaira eta instrumentueta-ko ikasleekin kalejira Zumartetik abiatuta.

### Orbeldirekin dantza poteoa

18:30 Dantza poteoa, Mikel Laboa plazatik abiatuta. "Kalejiran, plaza dantzak egingo ditugu elkarrekin dantzatzeko".

### Emakumeen Etxeko kalejira

17:30 Kalezarko Pelaiocenean. Hona hemen Emakumeen

Etxeak helarazi digun egitaraua:

- Udaberriko ikastaroen balorazioa.
- Udazkeneko ikastaroen proposamenak.
- Aholkularitza zerbitzuen balorazioa.
- Parekidetasun sailaren aurkezpena.
- Talde sustatzailea, aurkezpena.
- Gazte feministen aurkezpena.
- Hausnarketarako gunea.
- Batukada feministaren kalejira.
- Pintxoak eta edaria!

## San Juan sua Santuenean

Urtero moduan, ekainaren 23ko gaua argituko duen sua piztuko du Santuenea Kultur Elkarteak, gaeko 22:00etan. Ordu horretan, pasta banaketa eta su piztea iragarri dute.

## Hurrengo bisita gidatuak

### Ekainak 20, larunbata

• 11:00-12:30 Salbatore elizaren ondarea ezagutzeko bisita, eta organo erakustaldia.

### Ekainak 24, asteazkena

• 10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

### Ekainak 26, ostirala

• 10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil.

### Ekainak 27, larunbata

• 11:00-12:45 Bisita gidatu konbinatua: Museo Irekia eta Salbatore elizan bisita gidatua.

### Erreserbak:

650usurbilbizi.eus

## Udajolaseko guraso bilera

Izena eman duten haur eta gaztetxoengurasoei zuzenduriko bilera ekainaren 23an izango da, 17:00etan Sutegin. Bertan, ekimen horri buruzko nondik norakoan berri emango da.

Zuen iragarkia hemen

publizitatea@noaua.eus  
747-486-835



ARTZABAL  
BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com

·EGUNEKO MENUA  
·KARTA  
·RAZIOAK  
·HANBURGESAK  
·BOKATAK



943 36 91 39

lñaki  
Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA · ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@lnakiiturgintza.com · www.lnakiiturgintza.com

600 024 825

# OSASUN GIDA

**Irati Ibargoien**

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA

## Fisioterapia:

- Fisioterapia aktiboa.
- Teknika aurrerakoak.
- Emakumearen fisioterapia.

943 53 92 66  
623 46 26 58

## Osteopatia kraneala

Pertsonak tratatzen ditugu bere osotasunean;  
ikuspuntu integral eta holistiko batetik.

irati.ibargoien@gmail.com

@irati\_ibargoien\_fisioterapia

Puntapax kalea 6B, behea ezk. Usurbil 20170

www.iratibargoien.com



**Ibaiondo**

- 30 urte zuen osasuna zaintzen.
- Esperientzia eta profesionaltasuna.
- Diagnostikoan adituak.

Ordua hartzeko: 943-37 03 06

Ola Kalea, 12 - behea, ezkerra  
20160 Lasarte-Oria



- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikokoak
- Maisu formulak

**Iturraldebotika**

Tomas Iturralde botika  
33/22 PEZ.

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

# Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren  
azterketa bat egitera!

*sustraitu osasuna oinetatik*

## Usurbilgo

### Hortz Klinika



Zure irribarrea,  
gure lehentasuna

943 370 878 606 793 750

Kale Nagusia 10, 1º C4 · 20170 Usurbil, Gipuzkoa



Osakidetzarekin  
hitzarmena

www.zenta.es

## zenta

### ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure  
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.



Errekalde 59, Donostia 943 105 205



## MABIOK

FISIOTERAPIA AVANZADA AURRERATUA

Ekografietan, terapia  
inbasiboetan eta eskuzko  
terapietan adituak

- Lesio erreadaptazioa
- Diatermia
- Ariketa terapeutikoa



## USURBIL

OPTIKA

PROGRESIBO,  
URRUTIKO  
ETA GERTUKO  
BIGARREN LENTE  
PAREA DOAN!

# 2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

C/ Alperroburu kalea, 1. Bsb · T. 608 671 925 / 943 372 658

mabiokfisioterapia.com



mabiok\_fisioterapia

OSASUN GIDAN PARTE HARTZEKO

747 486 835

publizitatea@noaua.eus



# SAIZAR

Sagardotegia

Kale-zahar auzoa, 39

USURBIL

Sagardotegiko erreserbak:

943 37 39 95

Bodega:

943 36 45 97



[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)



Ondo  
Pasa  
San  
Joanak!



# Olivi

Erretegia  Asador

Saizar baserria, kale-zahar 39

USURBIL

Erretegiko erreserbak:

943 788 448

[reservas@asadorolivi.com](mailto:reservas@asadorolivi.com)

[www.asadorolivi.com](http://www.asadorolivi.com)

